

JARDUERA > Ezagutu neolitoa 3 minututan hemen

Orain dela 11.000 urte, neolitoak funtsezko aldaketa bat eragin zuen historiaurreko pertsonen bizimoduan. Garai hartan gizakiak harraparia izateari utzi zion, eta bere **elikagaien ekoizlea** bilakatu zen. Horrela **abeltzaintza** eta **nekazaritza** sortu ziren.



Bizimodua Neolitoan

Abeltzaintza eta nekazaritzaren sorkuntzarekin **sedentario** bihurtu ziren, hau da, leku finko batean bizi ziren ez zutelako janariaren bila joateko lekuz aldatu behar.


NOMADA IZATETIK.... SEDENTARIOA IZATERA



Non bizi ziren?

Etxe alboan animaliak eta landareak zituztenez, **etxeak egiten** hasi ziren, lehen **herrixkak** sortuz. Normalean, etxeak **egurrez**, **lastoaz**, **lokatzez** egiten zituzten.

Herrixkak ibai alboan kokatzen ziren, ura hurbil izateko. Herrixkak oholesi batez inguratzen zuten, beste gizaki edota animalietatik babesteko. **Ukuiluak** (animalientzat) eta **biltegiak** (uzta jasotzeko) zeuden.



Aurrikuntzak

Neolitoan **hiru aldaketa** tekniko garrantzitsu gertatu ziren:

1. **Harri gogorragoak** lantzen ikasi zuten eta, beraz, lanabes hobeak egiten zituzten: aitzurrak, errota, aizkorak ...
2. **Ehunak** (ohialak) egiten hasi ziren. Haria animalien ilez egiten zuten.
3. **Zeramika** asmatu zuten. Horrekin, sukaldean erabiltzeko, ura eta elikagaiak gordetzeko zeramikazko objektuak landu zituzten.



Tresnagintza

Nekazaritza lanak zirela eta, asmakizun batzuk agertu ziren, hala nola eskuzko **errotak**, **zeramika**, eta **zumezko eta espartzuzko objektuak**, **saskiak** eta **sandaliak**, **ehungailua**, **goldea** eta **gurpila**.



Espartzuzko sandaliak



Eskuzko errota



Neolitoko aizkora kirtenduna



Lehen trukeak

Neolitoan, gizakiak gai izan ziren irauteko behar zituzten baino elikagai gehiago ekoizteko. Horrek garrantzizko **ondorioak** izan zituen:


- Lana banatu eta **lehen lanbideak** sortu ziren: pertsona batzuk soroak lantzeaz arduratzen ziren, beste batzuk etxeak zaintzeaz eta abar.
- Falta ziren objektuak eta materialak eskuratzeko beharrak **trukea** agertzea eragin zuen, hau da, herrixken artean produktu batzuk eman eta ordainetan beste batzuk hartu.
- Pertsonen kopurua gehitzeak, lanen banaketarekin eta lurren zein etxeen desberdintasunezko partiketarekin batera, **herrixkako burua** agertzea eragin zuen, eta haren esku geratu zen giza jarduera guztien koordinazioa.

Artea


Aro honen bukaeran, hainbat monumentu eraiki ziren harrizko bloke handiekin, **megalitoak** deitutakoak. Hilobi edo erlijio gurtzarako gune gisa erabili ziren. Hona hemen Euskadin kokatutako megalitoen adibide batzuk:



Arlobiko menhirra, Araban



Sorginaren txabola trikuharria, Araban



Organbideko harrespila, Nafarroan